

Angel Barturen Azkorra Veneno
Lemoiz, Bizkaia (1930)

Aurkibidea

Biografia

1930. urtean jaio zen Armintzako portuko etxe batean. Aita bertokoa zuen eta ama Orabilles auzokoa. Bi neba eta hiru arrebatatik nagusienetakoa izan zen. Sei urte zituela Armintzako eskolan sartu eta hamaikarekin irten behar izan zen lanera joateko. Hamabi urterekin hasi zen aitari itsasoan laguntzen eta aita hil zitzaionean berak hartu zuen ontziaren ardura. Lau edo bost lagun ibiltzen ziren ontzian lanean eta denetarik arrantzatzen zuten arren (bisigua, lebatza...), itsaski asko harrapatu izan zutela kontatu zigun, batez ere otarraina. Honetarako, tresna ezberdinak ibiltzeaz gain, haiek eskuz egindako otzarak ere erabiltzen zituzten. Berarekin batera elkarriketatu genuen [Ana Mari Mendizabale](#)kin ezkondu zen hogeita hamar urte inguru zituela. Itsasoan ezagutu zuen bere ogibidea eta bertatik bizi izan zen betidanik.

Zintak

LMZ-003

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak

- **Elkarrizketatzailea(k):** Gonzalez, Andere
- **Data:** 2013-05-17
- **Iraupena:** 60 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Bilbao Telletxea, Arantza

LMZ-004

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Gonzalez, Andere
- **Data:** 2013-05-17
- **Iraupena:** 20 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

Pasarteak

1. Denetarik egindakoa da

- **Erref:** LMZ-003/003
- **Iraupena:** 0:03:22. **Hasi:** 00:03:55. **Bukatu:** 00:07:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Itsasoa » Lehorreko lanak » Lehorreko lanak

Laburpena:

Denetarik egin du: arraina eraman, aparailuak, neskati lanak... Amaren familia guztia Ondarroakoa izan zen. Arrantzalea izan zuen aita eta ama etxeaz eta umeez arduratzen zen. Hori zen antzinako legea. nebak ezkondu zirenean, aitarekin geratu zen. Senarra ere arrantzalea izan da, inguruko gizonik finena.

2. Sareetako zuloak

- **Erref:** LMZ-003/013
- **Iraupena:** 0:02:46. **Hasi:** 00:25:56. **Bukatu:** 00:28:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Sare-konpontzaileak

Laburpena:

Apurtuta heltzen zen sarea itsasotik. Zabaldu egiten zen, eta zuloa zegoen tokian troinua egiten zitzaion. Sarean kateatutako antxoa jatera joaten zen garda izeneko arraina, marrazo antzekoa, eta sareak apurtzen zituen hortz zorrotzak zituen eta. Ana Mari gaztea zenez, trebeagoa zen sareak josten.

3. Saregin bakarra

- **Erref:** LMZ-003/018
- **Iraupena:** 0:00:48. **Hasi:** 00:33:42. **Bukatu:** 00:34:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Sare-konpontzaileak
- Itsasoa » Lehorreko lanak » Arrain fabrikak

Laburpena:

Familiako andreak izaten ziren etxeko arrantzaleen laguntzaileak, baina berariaz sareak josten bera bakarrik aritzen zen. Antxoa sasoian, kanpotik etortzen ziren kontserba-fabrikara lanera.

4. Aitagaz eta amagaz ikasitako euskara

- **Erref:** LMZ-003/020
- **Iraupena:** 0:01:41. **Hasi:** 00:35:51. **Bukatu:** 00:37:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:

Euskara gipuzkoarra, bizkaitarra, batua bereizten dute. Eurek batua ez dute ulertzen; apur bat bai. Eta euren euskara ez dute ulertzen zenbaitek.

5. Ingurukoekin ezkondu

- **Erref:** LMZ-003/023
- **Iraupena:** 0:02:14. **Hasi:** 00:43:27. **Bukatu:** 00:45:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak

Laburpena:

Angelek dio bere adinekoak jeneralean inguruko neskekin ezkontzen zirela. Ez zirenez kanpora joaten, inguruko erromerietan aurkitzen zuten andregaia. Onenak bertokoak. Kanpokoen berri guztiak ez dira jakiten. Ingurukoen berri txikitatik jakiten da, ordea.

6. Otarrain asko harrapatzen zen

- **Erref:** LMZ-003/024
- **Iraupena:** 0:00:44. **Hasi:** 00:45:41. **Bukatu:** 00:46:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza motak » Kostaldeko arrantza

Laburpena:

Aitarekin hasi zen arrantzan. Atuna urruti egoten da, eta ez ziren joaten atunetan. Otarraina harrapatzen zuten; 20 edo 30 otarrain ekartzen zituzten egunean; baina gutxi ordaintzen zieten.

7. Hamar-hamabi urterekin itsasora

- **Erref:** LMZ-003/025

- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 00:46:25. **Bukatu:** 00:48:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:

Ana Mari beti ibiltzen zen lanean; beti inorentzat. Armintzako aita izan zuen Angelek eta ama inguruko baserri batekoa, Orabille auzokoa. Hamar-hamabi urterekin hasten ziren aitarekin itsasora. Gutxik ikasten zuten; bik edo hiruk ikasten zuten kapitain edo makinista izateko. Bost neba-arreba izan ziren etxean.

8. Gela bakarrean herriko ume guztiak

- **Erref:** LMZ-003/026
- **Iraupena:** 0:03:08. **Hasi:** 00:48:50. **Bukatu:** 00:51:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Eskola bat denentzako; berrogei ume edo, egoten ziren gelan, neskak eta mutilak elkarrekin. Maisu batek esaten zuen denek ikas dezaketela, bakoitzak bere martxan, Baina Angelek dio alde handiak daudela. Ikasle txarra zen. Libururik ez; arbela zuten. Dena zen erdaraz.

9. Athleticen jarraitzaile sutsuak

- **Erref:** LMZ-003/027
- **Iraupena:** 0:04:47. **Hasi:** 00:51:58. **Bukatu:** 00:56:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Futbola
- Lanbideak » Polizia

Laburpena:

Guardiak joan zitzaizkion motorrean zintzilik zuen Athleticeko bandera kentzeko edo Espainiakoarekin batera jartzeko agintzera. Elkarrekin hasi eta berehala egin ziren Athleticeko bazkide; elkarrekin joan izan dira San Mamesera, eta kanpoko partidatara ere joan izan dira. Ez da erraza Athleticeko bazkide egitea, eta garestia da.

10. Herriko mutil asko nabigatzera

- **Erref:** LMZ-003/028
- **Iraupena:** 0:02:37. **Hasi:** 00:56:45. **Bukatu:** 00:59:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Itsasoarekiko jarrera

Laburpena:

Hamaika urterekin utzi zuen eskola Angelek. Itsasoko lanetan aitari laguntzen hasi zen. Armintza herri txikia da. Gainera, herriko mutil asko nabigatzera joaten ziren; etxean bat gutxiago izateko modua zen. Beste batzuetan, baserrietara bidaltzen ziren morroi. Herriko motor txikietan itsasoratzeko gizon gutxi geratzen zen.

11. Otarrainetan aitarekin

- **Erref:** LMZ-003/029
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:59:22. **Bukatu:** 01:00:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantza motak » Kostaldeko arrantza

Laburpena:

<p>Aitarekin otarrainetan egiten zuen. Eskuz igo behar ziren otzarak, sokari tiratuta. Gero, makina sartu zen. Batzuetan goizean otarrainetan eta arratsaldeko lo kuluxka egin eta gero txitxarrota joaten ziren. Txitxarroa karnatarako erabiltzen zuten.</p>

Transkripzioa

-Ze bihar ein dozu aittegaz? Zein ein bihar izaten zendun umetan, sartu ziñenien?

-Ba, ze esango deusut, ba! Langostatan, por ejenplo, ba eitten zan; langostatan ta... Kordelak bere [montoek] eta, ez zan oten makinillerik, kordelak altzateko, eskuez; ta gixon bi tenka kordelari, ta beste batzuk sarie altzaten beste kordel batez. Eta holan. Eskuez, e; igual berrogei braza edo berrogeta hamar braza, ure ure profundidadie. Ta zemat eta ur handiau, gogorra ekarteko. Ta eskuez. Gero makinillie etor zan, ta makinilliek altza eitten deusur handin bere. Ha lehelau, han "había que apretar", [trainek] altza ta eguneko biharra [ein ta], ekarri jornaltxue ta etzera. Etorri, siestatxue bota, ta atsalden, txitxarrota joaten ginen, igual, koixten, hara etze ondora, bateltxuez, txitxarro kazean, ta koixi eitten gendun, karnatarako imitteko otzaran. Ta karnata freskue imitten zanen, haietan, jaulatan otzaratan, igarri eitten zan. Hurrengo egunean, igual, arraiñe gehau koixi.

12. Otarrainetarako otzarak

- **Erref:** LMZ-003/030
- **Iraupena:** 0:00:39. **Hasi:** 01:00:42. **Bukatu:** 01:01:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lan-tresnak eta azpiegiturak » Lan-tresnak

Laburpena:

Otarrainak harrapatzeko otzaren argazkia erakusten dute. Norberak egiten zituen otzarak basoan ebakitako egurrekin.

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com